>justizia

## 2017-2018ko EUSKARA IKASTAROAK

Alegazioetan, LABek esan zuen lehendabiziko gauza izan zen eredu berria behar dugula eta horren inguruan eztabaidatzeko eskatu genuen.
Beste kontu garrantzitsua da ahalik eta gehien zabaldu behar dela euskara ikasteko aukera, beraz, ikasi ahal izateko exijitzen diren baldintzak malgutu behar ditu Justizia Sailak. Aspaldi honetan euskalgintza taldeen aldarrikapenetako bat da hizkuntza doan ikastea eta LABek bat egiten du horrekin.

Horiek izanik gure abiapuntuak, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Aurreko ikasturtekoaren aldean bitarteko langileei eskaintza handitzen zaie zenbait kasutan: “lanpostu hutseko bitartekoak, errefortzuko bitartekoak eta ordezko bitartekoak sartzen dira, baldin eta izendapenerako aurreikusitako iraupena euskara ikastaroaren iraupen berekoa ala luzeagoa bada.”
- Hori berez positiboa bada ere, oraindik Justizia Sailak titularrak eta bitarteko langileak bereizten jarraitzen ditu. LABek beti eskatu du euskara ikasteko aukera berdinak egotea guztientzat.
- Gaixoaldian egonez gero, ikastaroa eskatzeko epean edo eskaera aztertzeko aldian, eskabiderik onartuko ez zutela jartzen zuen zirriborroak. Guztiz bidegabea da baldintza hau eta erabat kontra agertu ginen. Behin betiko agirian egiaztatu dugu kendu dutela.
- 5 orduko ikastaroan aritu ahal izateko (liberazioa) lehengo (2016/2017ko ikasturtera arte) baldintza zen A2 maila gainditua izatea, oraingoan, aldiz, B1. Horrek esan nahi du ikastea erraztu beharrean oztopatzen ari direla. LABek eskatzen du 0 mailatik hasita ahalbidetzea 5 orduko ikastaroetara joateko aukera. Ikastera askoz ere jende gehiago animatzeaz gain euskaren mesederako izango litzateke eta administrazioak legez eman behar duen zerbitzua hobetuko luke.
- “...lauhileko iraupena izango duten 36 liberazioko kopuru mugatua”ri lotsagarri

## CURSOS DE EUSKERA 2017-2018

En las alegaciones lo primero que dijo LAB es que es necesario un nuevo modelo de cursos y petimos reunirnos para tratar el tema.
Otro asunto importante es que se debe ampliar lo más posible la oporturnidad de aprender euskera; por consiguiente, el Departamento de Justicia tiene que flexibilizar las condiciones exigidas para poder aprender. Últimamente, una de las reivindicaciones de los grupos que trabajan por la cultura vasca es el estudio gratuito de la lengua. Y en ésas está también LAB.

Con esas bases destacamos las siguientes:

- En comparación con la del curso anterior, al personal interino se le amplía la oferta en algunos casos: “(funcionario) interino de vacante, interino de refuerzo o interino sustituto, siempre y cuando la duración prevista en el nombramiento sea igual o superior a la duración del curso de euskera solicitado.”
- A pesar de lo positivo de esa apertura, el Departamento de Justicia sigue discriminando el personal titular del interino. LAB siempre ha pedido las mismas oportunidades para todo el mundo.
- El borrador decía que, estando de baja por enfermedad durante el plazo de inscripción o de estudio de la solicitud, no se atenderían las peticiones. Esa condición es un atropello y nos mostramos radicalmente en contra. Hemos comprobado que en el documento definitivo lo han eliminado.
- Hasta el curso 2016/2017 se exigía para poder optar a los cursos de 5 horas (liberación) haber superado el nivel A2, en la actualidad el B1. Eso significa que en vez de facilitar el estudio lo están obstaculizando. LAB pide que se dé la opción a acudir a cursos de 5 horas desde el nivel 0. Mucha más gente estaría dispuesta a estudiar y resultaría en beneficio del euskera y del servicio que la administración está obligada a prestar por ley.
- Introducir “...cantidad limitada de 36 liberaciones de duración cuatrimestral” nos parece vergonzoso y exigimos que

deritzogu eta bertan behera uzteko exijitu genuen neurri murritzailea eta euskararen aurkakoa delako. Ez digutenez jaramonik egin, ez dute emango ikasturte osoko liberaziorik eta deialdi osagarrian onartuko dituzten lau hilabetekoak deialdi orokorrean emandakoen araberakoak izango dira.

- Hortaz, bitarteko langileei liberatzeko aukera onartzeak ekar lezakeen gastu igoerari galga jarri nahi diote ikastaro kopuru gehienezko bat jartzen. Berriz diogu: lotsagarria!
- AUTOIKASKUNTZA ikastaroetarako eskabideak aztertzerakoan malgu jokatzeko eskatu diegu, hauxe baita langile batzuek euskara ikasi ahal izateko daukaten modu bakarra.

Honaino deialdi orokor baterako egin ditugun alegazio berriak, baina aurrekoetan egindakoak ere berretsi ditugu, hona hemen batzuk:

- Euskaltegiko joan-etorriak ahal izateko gehienez jota 20 minutuko tartea oso laburra da hainbat kasutan. Beraz, "ezinbestekoa den denbora izango dute joateko edota itzultzeko" esaldiarekin ordezkatzeko eskatu dugu.
- Baimen kopurua (plantilaren %30) ezabatzea edo gutxienez handitzea eskatu izan dugu beti. Hala ere eta hori gertatu ezean honako hau: emandako 2 orduko ikastarora doazen 3 pertsonako langile bat kontratatzea. 5 orduko ikastaroetan ordezkoa jartzen denez ez da behar mugarik ezarri.
- 4. HE prestatzeko ikastaroak eskaintzen zituen aspaldi Justizia Sailak. Bada, aukera hori berriro sartzeko deialdian esan diegu.
- Trebatzaileak atzera kontratatzeko oso emaitzak onak eman zituen lana egin zutelako eta langileen erantzuna ere primerakoa izan zelako. Behargin askok haien falta sumatzen du euskaraz hobeto moldatzeko.
- Dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan arren langile nahikotxok euren burua euskaraz trebatzen jarraitu nahi -eta behar dute- hizkuntza bietan zerbitzua emango badute. Hortaz, ikasten jarraitu nahi duenari oztoporik ez jartzeko.

**Eskabideak aurkezteko epea 2017ko maiatzaren 17tik 29ra izango da, biak barne.**

2017-05-18

desapareciera del texto por ser una medida restrictiva y contraria al euskera. Como no nos han hecho caso, no van a conceder ninguna liberación de curso completo y las de 4 meses que se vaya a dar en la convocatoria complementaria se supeditarán a lo concedido en la general.

- Por lo tanto, al posible aumento del gasto que supondrá dar más opciones al personal interino, le quieren poner freno marcando una cantidad tope. Repetimos: ¡esto es una vergüenza!
- Hemos pedido que al estudiar las peticiones del CURSO DE AUTOAPRENDIZAJE sean flexibles ya que para muchas trabajadoras y trabajadores este es el único modo de poder estudiar euskara.

Hasta aquí las peticiones nuevas que hemos realizado para una convocatoria general, aunque hemos reiterado también otras anteriores, entre ellas:

- 20 minutos como máximo para ir o volver del euskaltegi es muy poco en muchos de los casos. Por eso hemos pedido que lo cambien por "tendrán el tiempo imprescindible para ir o volver.
- De siempre pedimos que se elmine o por lo menos aumente el número de concesiones (30% de la plantilla). Mientras eso no suceda que contraten 1 trabajador o trabajadora por cada 3 personas que vayan a cursos de 2 horas. En los cursos de 5 horas, al poner una persona sustituta no es necesario poner límites.
- Hace tiempo el Departamento de Justicia ofrecía cursos de preparación del PL 4. Solicitamos que vuelvan a incluirlo en la convocatoria.
- Contratar nuevamente los dinamizadores y dinamizadoras (trebatzaileak) porque realizaron un trabajo que dio unos resultados estupendos y la respuesta del personal también fue excelente. Mucha gente los echa en falta cuando quiere utilizar el euskera.
- Una vez conseguido el perfil requerido, no pocas trabajadoras y trabajadores desean -y necesitan- seguir formándose para dar servicio en las dos lenguas. Por consiguiente, pedimos que a esas personas no se les pongan trabas.

**El plazo para presentar las solicitudes será del 17 al 29 de mayo de 2017, ambos días inclusive.**

18-05-2017